

Helduen literatura | POESIA

Sinplistik
Hedoi Etxarte
Susa, 2012


Desfasea

ABADE ETXEETAKO EUSKAL POESIA SOZIALA gaintitzen duen suzko bonba hau irakurri ondoren sartzen zaizu halako bake sentsazio bat ez dena suminduena, ez dena militantearena, intimoagoa dena eta, era berean, guztiz artegarria: Alain Urrutiaren azaleko txakurraren amorrua zer da, gurea? Amorru horri eusten ari zaion eskua zer da, gurea?

Eta esan dugu jadanik badaezpadako hitz hori: soziala. Jakizue, ordea, Hedoi Etxarteren liburu hau ez dela soziala bakarrik, espresionisten eran sentimentala ere badela. Eta ez da soilik sentimentala, ze esperimentu hotz bat ere bada, errepikapenekin, elipsiarekin, tipografiarekin jokatzeko duena. *Suzko Lilia* (Susa, 2008) ez hain efektiboan barruntatzen zitzaion indar sismikoa neurririk gabe eta eder atera da beraz orain kanpora. Liburu honetan defendatzen da egia eta salatzen da gezurra, eta kontzeptu erlatibo horien alde batean zein bestean kokatzen da idazlea, erdibideetan babestu barik. Giotto edo Dalí bezala, Etxartek ere badu bere *Azken Afaria* (*Gaurko afaria*, 48. or.), adeitsu eta politikoki zuzena izan gura ez duena, eta ohartarazten duena ETaren jomugan egon aurretik hipokrita zena gero ere hipokrita dela. Tabuekin eta halako egia enpirikoekin eraiki du Etxartek mundu bat itsu batek soilik ikusten ez duena eta mundutik kanporatuek osatzen dutena, alienatuena, mileuristena, langabeena eta mamuea, orain iraultzaile eta orain erdipurdiko garen burges txikioa. Uzkiak nazka eta era berean atsegin morbosoa ematen digunon mundua da.

Iraultza artistiko ororen desmasiekin idazten du Hedoi atentzioa deitzeko, pentsatzera bultzatzeko eta amorrarazteko. Sarkasmoa txarto ulerturik, agian irudituko zaio bati baino gehiagori gaintetik jartzen den handi bat dela, baina niri irudituko zait maisuki erabilia Brechtek zerabilen “distantzia efektuaren” antzeko ironia neurtu bat, gizartea zehatzago behatu, kritikatu, eta dialektikoki aurkezteko aukera ematen diona: “Zelula bakoi-tzean haragitzen ditugu/ abangoardia eta erretagoardia; koadroak gara, liderrak eta ardiak;/ dominatzaileak eta dominatuak”. Errealitate berri baterako lexiko berri bat dakar *Sinplistik* honek, erreferentzia eta kultismoz bete baina erradikala eta argia. Gogorra da, zauriak egingo dizkizu, haserretuko zara esaten dituen gauze-kin, hunkituko zaitu hainbeste tristezia eta biolentziak. Zure erreakzioaren bila dabilen poesia da. Arte da. ■

Igor Estankona



Made in Galiza
Sechu Sende
Txalaparta, 2012.
Itzultzailea: Txerra
Rodriguez.

Metaforak, hizkuntza gatazkak bistaratzeko

SECHU SENDE SOZIOLOGIA ezagutu nuen lehendabizi, galego teknikarien udako ikastaroen harira elkarriketa egin niolako ARGIArako. Idazlea baino, galego eragilea nuen buruan, eta hala irakurri dut 2007an argia ikusi zuen *Made in Galiza*. Aitor dezadan astoa kartolekin dabilen bezala irakurri dudala liburua, batik bat hizkuntza gatazkarekin zerikusia duten narrazioetan begiak iltzatuta. Egunerokoan arreta horri jartzen diodalako.

Irribarre etengabeaz irakurri ditut, goxo kontatuak daudelako. Baina euskaldunak, euskal hiztun izateko eguneroko gaintitu beharreko hesiez ohartua bada bederen, ezin zozo aurpegiz leitu metaforaz eta fantasiaz jositako ipuinok. Narrazio goxo-gordinak direla esango nuke, eta gogora datorkidan ipuina *Hitzik gabeko lekua* da, egia esan, gordinetik goxotik baino gehiago duena. Kurdistango Varba herrian ez dute hitz egiten ez idazten, haien hizkuntza eta hiztunak jazarriak izan direlako. Haiena erabiltzea debekatu dieteenez, besterenik ez dute ahoratuko.

Ez dut uste parekotasun soziolinguistikoa egiten hasteko narrazioak direnik, hizkuntza gatazka sorburu duten ipuin asko galizieraren egoerarekin daude lotuta eta ezin dira euskara bere horretan ekarri. Euskal hiztun kontzientziatuak, soziolinguistika hizpide dela, literaturaz gozatzeko aukera izango du. Hizkuntza gatazkaz kontzientziarik ez duenari, agian, bihotzera ailegatuko zaizkio ipuinok. Bihotzetik burura eta burutik mihirako bidea egitea ederra litzateke. ■



Onintza Irureta Azkune